



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ALTZIBAR

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2021-10-05	19:00	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Enekoitz Markos, Iosune Cousillas eta Eneritz Arbelaitz

Herritarrak: 17	Euskaraz: 17		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 10		Gizonezkoak: 7	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 7	51-65 urte: 8	>66 urte: 2

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Auzo batzarra eta zinegotziak aurkeztu dira.
2021 urtea	Urteko balorazioa egin da, baita legegintzaldiko proiektu eta egitasmo nagusienak landu ere.
2022ko aurreikuspena	Aurrekontuen lehen zirriborroa aurkeztu da.
Auzoa:	Auzoan aurreikusten diren obrak eta hobekuntzak azaldu dira: -Biribilgunea -Beheko biziberritzea -Frontoia -Agerrealdeko etxeak Auzoan inbertsio handiak egingo dira mugikortasunari begira, azpiegituren berritzeari begira eta planoak errepasatu dira. Obrak irauten duten bitartean abisuak jarriko dira obraren faseak azalduz. -Auzotar batek aipatu du aparkalekuetan galiboa jarritz gero, arazoa izan daitekela egunerokotasunean furgonetak erabiltzen dituztenak ezin izango dutelako sartu aparkalekuetan, kabitzen ez direlako. Erantzun da galiboa jartzea beste hainbat arazori soluzioa emateko dela, lehen ere auzoan arazoak



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



izan ditugulako beste aparkalekuan. Agian galiboaren altuera erreparatu beharko da, autokarabanen eta furgoneten altuerak aztertuta.

-Mikelete eta Martintxo kaleetan asfalto inpresoa jartzearen inguruan hitz egin da. Auzotar batek aipatu du deserosoa dela bizikleta eta oinezkoentzat, Iturriotzen, adibidez. Planoak aztertu dira kalez kale, aldaketak aipatzeko.

-Beste auzotar batek aipatu du zailtasunak dituztela Zelaia Taldeko aparkalekutik sartu eta ateratzeko. Arriskutsua bihurtu da. Aparejadorearekin harremanetan daude. Hirigintzako zinegotziari azalduko zaio gaia jarraipena egin dezan. Baina aukera ezberdinak daude trafikoa antolatzeke eta orain aparkalekuan egiten ari den obrarekin lotuta ere asko hobetu liteke egoera.

-Auzotar batek aipatu du Martintxo kalean kamioak ez sartzeko seinalea argiago jarri beharko litzakela, kamioiak sartzeko direlako. Orain dagoen seinalea ez da askorik ikusten.

-Aipatu da frontoia egitea oso positibotzat baloratzen dela, baina kirol eremu zabalago bat egon beharko lukela Cadarso egon zen eremuan. Erantzun da lurzoru horren kutsaduraren arabera zer egin daitekeen ikusteke dagoela. Hainbat auzo batzarretan eskaera ezberdinak jaso izan dira: frontoia, oporretako autokarabanentzako gunea, erreka errekuperazioa... Baina ikusteke dago. Hala ere, frontoia eraikitzea oso garrantzitsua dela aipatu da Altxibarko auzotarrentzat, besteen artean erabilpen anitzeko aterpe zabal bat izango dutelako auzoan, ez soilik kirolerako gunea.

-Auzotar batek aipatu du Agerraldeko etxeak egiteko garaian estetikari erreparatu behar zaiola, auzoaren ezaugarriak mantendu ahal izateko. Hau herri guztira zabaldu beharko litzateke. Teilaturik gabeko etxeak, fatxada itsusiak... Etorkizunean egingo diren etxeak mantendu beharko luteke auzoaren armonia. Udalak ahal duen guztia egin beharko luke hori ziurtatzeko. Gai honen inguruan asko hitz egin da. Dagoen plan orokorraren mugak aipatzen dira, lehendik datozen arazoak. Baina argi dago, bakoitzak buruan dituen "politaren" ikuspegia ere ezberdina dela. Orain batez ere "alde zaharren" babesa dago alde batetik, landa eremuarena bestetik. Baina Oiztzen etxe asko datoz (Arragua eta Ugaldetxo ere aipatutakoak) eta estetikari dagokionez zaila dago mugak jartzeko bileran hitz egiten diren ezaugarriak dagokionez. Hurrengo plan orokorrean gai hori lantzea eskatzen da.



2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



-Hondakinen gaia dela eta, azken aldi honetan zabarkeri handia ikusten da. Batez ere Agerrealde, Zelaia etxadia eta Etxebeste etxadian gertatzen dena aipatu da. Aurreikusten da hainbat atarietan zintzilikatzekoak ahalik eta indibidualizatuen jartzea, atari bakoitzeko hondakinak bere aurrean, gehiago errespetatzen baita. Done petrin ere goizez norbait hondakinak ateratzen hasi dela aipatzen da, ordutegia errespetatu gabe.

-Agerralden parkinaren ondoan dagoen zintzilikatzekoa okerra dago kotxeek jotzen dutelako.

-Kale garbiketaren inguruan ere hitz egin da. Batek aipatu du paperontziak egon beharko luketela leku guztietan. Baina Udaletik eta auzotarren aldetik nabarmendu da garbitasuna garbia izatean dagoela

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,36
bilera ongi gidatu da	9,18
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9
Auzotar kopurua	6,09
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,09
Saioa probetxugarria izan al da?	9,41
Egunaren egokitasuna	9,27
Orduaren egokitasuna	9,45
Lekuaren egokitasuna	8,73